

Txillardegiren ekarria euskararen arnasmuguneei

Maren Belastegi Guridi

Uemako lehendakaria

Zuk esan zenuen, Jose Luis: «Ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du». Esaldi horrek laburbiltzen du zure ekarria, zure lanaren zioa eta funtsa. Sakonagoa da, askoz, zure lana, gogoeta, mamia, Txillardegi, ez bairik gabe. Baina koherentziaren bidetik, beti defenditu zenuen abertzaletasuna eta independentzia hizkuntzaren ikuspegitik egin behar zela, nekez lortuko zela, bestela, ezer.

Zuregandik jaso genuen, Jose Luis, euskarak behar zituela arnasmugunak, euskaldunok euskaraz aritzeko esparruak behar ditugula, euskara desagertu ez

dadin. Xabier Iasirekin batera idatzi zenuen *Soziolinguistika matematikoa* liburuan defenditzen zenuen «bi hizkuntza elkarrekin bizi diren eremuetan, Euskal Herrian kasu, gune euskaldun huts batzuk ez badaude, euskara ez bada beharrezkoa, alegia, galdu egiten dela». Zuregandik jaso, eta egunero-egunero praktikan jartzen saiatzen gara UEMAKo lurraldea osatzen dugun udalerrietan.

Hurbiletik ezagutu zintugunok zure goxotasuna, xamurtasuna nabarmentzen dihardugu egunotan. Ideietan irmoa eta tinkoa, gogorra eta bortitza batzuetan, baina buru argia eta koherentea zen zurea. Bihotz handiko pertsona izaki, harreman pertsonaletan hurbila, hizkuntzarekiko grina eta indarra erakusten zenuen zure jardunean. Eta hori transmititu zenigun zure ondoan izan gineno.

Politikan ere aritu zinen, euskara politikagintzan txertatzen jardun zinen. Euskararen inguruan artikulatzen zenuen Euskal Herria. Ezin zenuen eraiki Euskal Herririk euskararik gabe. Euskararen inguruan artikulatu nahi zenuen euskal nazioaren izaera. Hizkuntzarekin batera herrikidetasun berri bat nagusitu zela zenioen, «naziotasun berri bat, eta azkenean, abertzaletasun berri bat».

Abertzale erabatekoa. Baina ez zenuen abertzaletasuna uleretzen euskararik gabe. «Hizkuntza bat ezin da salbatu bihotza ez badago tartean, ez bazaio dimentsio abertzalea ematen. Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz. Estatu edukita, Irlandakoa gerta liteke, baina hori salbuespena da. Espero dezagun gu ez izatea bigarren salbuespena», esan

Zuk esan zenuen, Jose Luis: «Ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du». Esaldi horrek laburbiltzen du zure ekarria, zure lanaren zioa eta funtsa

zenuen azkeneko elkarriketeko batean. Hori bera jorrazten dihardugu. UEMAKo herri-tarrek Euskal Herri askea nahi dugu, bai. Baina Euskal Herri euskalduna nahi dugu, askatasunean euskaraz biziko dena. Eta hori herriz herri jorrazteko premia aldarrikatzen dugu gaur eta hemen, zu gogoan zaitugula, Jose Luis. Hori da egin diezazukegun omenaldirik berona. Euskararentzat arnasmugunak zabaltzen eta hedatzen jarraitzea. Bihotza jartzea euskarari, euskara beharrezkoa egitea egunerokotasunean, lanean, aisialdian, administrazioan, maitasunean, eskolan, kalean...

Ekarri handia egin diozu euskarari, Txillardegi. Euskal eleberrigintza modernoaren aitzindari izan zinen. Euskara Batua bultzatzaile, Mitxelenaekin batera. Euskal soziolinguistikaren maisu eta erreferente izan zara azken hamarkadetan. Guk, UEMAKo kideok, zure ekarria jaso, zure iturritik edaten jarraitu, eta hau zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu, euskararentzat egunero-egunero arnasmugunak eraikitzen segituz, erreferentzia guneak sortuz. Mila esker, Jose Luis.

Que mas da decir 'etxe' o decir 'casa'

Jon Urruxulegi

Idazlea

Txillardegirekin bildu nintzen batean, solasean lasai gindoazelarik, orduan atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzako buruzagi baten euskararekiko axolagabekeria agertu zidan. Aipatu buruzagia, ordea, euskal instituzio gorenaren ikurtzat jartzen zuen eta baita Eusko Jaurlaritzan aginte makila zuen alderdiaren sinbolotzat ere. Eta euskararen etorkizuna piperririk ere ez zitzaizela inporta adierazteko, aipatu buruzagiaren hitzak adierazi zizkidan: *Qué más da decir 'etxe' o decir 'casa'*. Alegia, garrantzizkoa independentzia lortzea zela, Euskal Herria euskaldunek kudeatzea, industria eta ekonomia sendoak edukitzea eta hori edozein hizkuntzatan lor zitekeela. «Hori ez, ezin diagu inola ere onartu Euskal Herria *Irlanda bis* bihur-

ztea». Nik uste dut alderdi nazionalista haren euskararekiko jarrerara dezente aldatu dela euskararen alde, horretarako Txillardegi eta txillardegizale porrokatu askok «urte kritikoa egindako lanaren ondorioz izan bada ere».

Txillardegi gizon globala izan zen. Dena interesatzen zitzaion, dena aztertzeke gaitasuna zuen, jakitun zen guztia elkar erlazionatua dagoela. Hori bai, euskara izan behar zuen, ordea, oinarri jaso nahi zuen eraikina. Bere iritziz ez zen aski euskararen alde gogor egitea, euskara jorraztu, biziberritzen saiatu, mundu modernorako tresna egoki bihurtzen saiatzea. Euskarak pertsonaia indibidual jakintsu batzuen zientzia baino zerbait gehiago izan behar zuen. Herriaren eguneroko tresna zegoen bihurtu beharra. Eta lorpen hau politikan ikusten zuen, euskal gobernu independente baten euskarazko administrazio global baten eraginpean. Horregatik, politikari berebiziko

garrantzia ematen zion, baina politika hori euskaraz hezurmamitu behar zen, euskaraz eta hasieratik, honetan kontsekuente ez izateak *Irlanda bis* eraikitzeke eramango gintuela eta. Koherente izan nahi horrek, arerio asko ekarri zion. Politikari askorentzat politika bera bihurtzen da helburu, Txillardegik argi zeukan, ordea, helburua, goi-helburua: Euskal Herria helburu.

Egunen batean Euskal Herri independente euskalduna ikusiko bada, euskara batuaren beharra inork baino lehenago edota behintzat zehazkiago ikusi zuen. Buru-belarri ekin zion hain funtsezko tresna lortu ahal izateko ekimenari. Ekintzailea zen denerako. Berak jarri zuen abian euskara batuaren prozesu luzea bezain korapilatsua, gero Koldo Mitxelena Arantzazun taxuz eta zentzuz koroatu zuena. Iristear zegoen ikastolen munduaren eklosioak euskara batua behar zuen, testu-liburuak berdinak izan behar zuten

Tuteran nahiz Maulen, Bilbon, Donostian, Iruñan nahiz Gasteizen. Idazteko euskalkien anarkia gainditu beharra zegoen. Hau edonork ikusten zuen, baina bidea irekiko zuen pertsonaia ausart bat falta zen, falta izan zen, Txillardegik arazoari

Egunen batean Euskal Herri independente euskalduna ikusiko bada, euskara batuaren beharra inork baino lehenago edota behintzat zehazkiago ikusi zuen. Buru-belarri ekin zion hain funtsezko tresna lortu ahal izateko ekimenari

kemenez heldu zion arte. Batuaren prozesua herrian txertatu zen eta lur emankor honek loratu eta fruitua emanarazi zion. Diktadura makur eta zital haren botapean ikastolen mundu miragarri bezain sinestezina mamitu zuen herriak badu etorkizuna.

«Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz». Bereak dira hitz hauek. Berak esan ohi zuen erresumak erabakitzen duela hizkuntzen etorkizuna eta hau gero eta nabarmenago dela egia. Euskal Herria liberatzeko erakunde armatuaren ize-naren bila zebiltzala, «Euskadi Ta Askatasuna» proposatu zuen Txillardegik. Independentzia izenean bertan. Bizitza osoan koherentea, kontsekuentea izan zen eta zintotasun honek ekarri zion, besteak beste, Euskaltzaindiaren beraren kondena. Inork merezi bazuen, Txillardegik ondotoxo merezi zuen Euskaltzain osoa izateko ohorea, baina ez dakigu zergatik edo badakigu, Euskaltzaindiak ukatu egin zion ederki zor zion meritu hori. Seguru min egin ziola, edonork baitu laketa esfortzuen nekea onura ateratzen duenak aitortzea.

Kolosala izan haiz eta historiak, gure historiak, merezi duan aulkian jarriko hau. Hori-xe opa diat. Gu ere saiatuko gaituk *etxe* eta ez *casa* esaten. Agur eta ohore, Txillar.